


Lehen Hezkuntzako 1.-3. mailak

Webguneko materialak: Bilatu © sinboloa, egileari eta obrari buruzko memoria-jokoa, Egile Eskubideen Ikasgela

Inprimatzeko materialak: «Identifikatu obra» koloreztatzeko ataza, iturriak aipatzeko ariketa eta iturriak aipatzeko arauak

Materialak kasuaren arabera erabil ditzakezu: adibidez, lehen mailtako ikasleentzat, inprimatzeko atazak eta lineako memoria-joko bat besterik ez (Memoria-jokoan, hiru maila daude). Hiruzpalau eskola behar dira material-pakete osoa lantzeko.

Kontuan izan ikasleek onlineko atazen testuak entzun ditzaketela ere. 

ESKOLAREN GAIA	HELBURUA	MATERIALA	ORIENTABIDEA
Obra eta egilea, 1. zatia	Obraren kontzeptu-arekin ohitzea, egiletza aitortzea, © sinboloa identifikatzea.	«Identifikatu obra» koloreztatzeko ariketa.	Onlineko atazak burutu aurretik, zenbait obra aurkeztuko zaizkie ikasleei, eta obra gehiago bilatu-ko dira gelan (adibidez, liburuak, koadroak, musika-piezak...). Elkarrekin koloreztatzeko ataza egitea, bikotearekin hitz eginez. Atazarako ideia: etxean edo beste ingurune batean hainbat obra bilatzea. © sinboloa aurkeztea.
Obra eta egilea, 2. zatia	© sinboloa identifikatzea, obra motak eta egileak.	«Bilatu © sinboloa» jokoa. Egileari eta obrari buruzko memoria-jolasa.	Web orriko atazak egin: Bilatu © sinboloa eta Memoria-jolasa. Memoria jokoaren mailarik errazenean, elkarrekin jokatu daiteke eta, aldi berean, ikasleei zenbait egile eta obra aurkeztu.
Egileak erabakitzen du (ikaslearen proiektua)	Egile-eskubideak errespetatzea, ikaslearen beraren lana errespetatzea, iturriak aipatzen ohitzea.	Egile Eskubideen Ikasgela: ikonoen atzeko atazak (ikasle baten olerkia argitaratzea, ikasle baten marrazkia argitaratzea, informazio-iturriak erabiltzea, iturriak aipatzea, elkarrizketa, argazki bat argitaratzea)	Egile-eskubideekin ohitzea, Egile Eskubideen Ikasgelako atazen bidez. Ikasi obra guztiek ez daramatela © sinboloa.
Iturriak aipatzea	Aipatu iturri errazak.	Iturriak aipatzea inprimatzeko ataza. Iturriak aipatzeko arauak.	Iturriak aipatzen ikastea, inprimatzeko ataza baten laguntzaz.

